

## **Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak Visio 2009 konferentziaren antolaketan parte hartu du**

2009/05/22

VISIO 2009 zaintza teknologikoa eta adimen lehiakorrarekin zerikusia duten gaiak partekatu eta eztabaidatzeko antolatu den nazioarteko topaketa da. BAI Bizkaiako Berrikuntza Agentzia, LEIA Arabako Teknologi Garapenerako Zentroa, SPRI Garapen Agentzia eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa dira antolatzaileak.

VISIOren hirugarren edizioa Vitoria-Gasteizeko Europa Jauregian izango da 2009ko ekainaren 4 eta 5ean.

Ekitaldi honen helburua zaintza estrategikoa promozionatu eta/edo ekimenak hobetzeko zaintza estrategikoaz baliatzen diren profesionalak elkartzea da.

Bi edizio nahikoa izan dira VISIO topaketa arrakastatsua bilakatzeko, hemen eta mugaz kanpo. Honek hirugarren ediziorako gogor saiarazi ditu antolatzaileak eta horregatik "VISIO enpresen lehen topaketa" jarri da abian Bertan, gai hauetaz arduratuta eta kontzeptu hauetan lehen urratsak ematen ari diren enpresek toki berezia izango dute.

<http://www.conferencia-visio.com/>

